



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA
Karrera judizialerako kode etiko bat
egiteko lantaldea

2016ko abenduaren 16ko bilkuran onartutako behin betiko testua

ETIKA JUDIZIALAREN PRINTZIOAK

HITZAURREA

«Etika judizialaren printzipio» hauen bidez, Espainiako epaileen balioak eta jokabide-arauak jasotzea da gure asmoa. Epaile-lanetan aritzeko gida bezala baliagarria izatea espero dugu, eta, horrela, lanbideko kideek dituzten erronkei buruzko taldeko elkarrizketa eta banako hausnarketa sustatu nahi ditugu, etengabe aldatzen ari den lege- eta gizarte-esparru konplexu honetan. Gainera, epaileek bere lanean aritzerakoan erabiliko dituzten jokabide-ereduak esplizitu eginez, herritarrek justizia-sisteman duten konfiantza indartzeko asmoa ere badugu.

Etika judizialari buruzko testua nazioartean horren aldeko testuinguru batean gaudenean onartu da. Izan ere, 2001ean Bangaloreko Printzipioak onartu ziren, Nazio Batuen esparruan, eta geroago Europar Kontseiluko Europako Epaileen Aholku Batzordeak epaileen etikari eta erantzukizunari buruzko irizpena eman zuen 2002an. Era berean, Iberoamerikako Epaileen Goi Bileran etika judizialaren eredu-kode iberoamerikarra onartu zen 2006an (horrekin bat egitea erabaki zuen Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak 2016ko otsailaren 25eko bilkuran), eta epaileen deontologiari buruzko Londreseko Adierazpena adostu zen 2010ean, Justizia Kontseiluen Europako Sareak sustatuta. Azkenik, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen azaroaren 17ko R(2010)12 gomendioak Etika Judizialari buruzko Kode bat onartzeko eskaria egin zien Europar Batasuneko estatuei.

Azken urteetan, Europar Batasuneko herrialde gehienek etika judizialari buruzko testuak onartu dituzte (kodeak, gidak, printzipioen bildumak), hainbat erakundek proposatuta (Magistraturaren Goi Kontseiluak, epaileen elkarteak, epaileen konferentziak, epaimahaiburuak...).

Testuinguru horretan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak «Etika Judizialaren Printzipioak» idatziz jasotzeko prozesua abiarazi zuen. Horiek idazteko batzorde bat osatu zen epaileen elkarteetako ordezkariekin, elkarteetako kide ez diren epaileekin eta aditu batzuekin. Batzorde horrek, gainera,



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Karrera judizialerako kode etiko bat egiteko lantaldea

Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Sala bakoitzak izendatutako ordezkarien laguntza izan du, betiere epaileen artean dauden askotariko iritziak jasota gera zitezten.

Diziplina-araubideak ez du zerikusirik etika judizialarekin, inola ere ez. Azken horrek guztiz borondatezkoa behar du izan, lege-erantzukizunik gabekoa. Diziplina, aldiz, nahitaez bete beharreko arau batzuek osatzen dute, eta horiek ez betetzeak ondorio juridikoak ditu. Etika judiziala estimulu positiboa da, bikaintasunera bideratuta baitago; diziplinak, ordea, estimulu negatiboa du oinarri, zehapenaren bidez funtzionatzen baitu. Hori dela eta, «Etika Judizialaren Printzipio» hauek epaileen esku daude, haietako bakoitzak printzipioak bere egitearen eta bere jokabidean aplikatzearen araberakoa izango baita printzipioon eraginkortasuna.

Etika, oro har, bizitza on eta oso baten aldeko proposamena da. Hortaz, etika judiziala justizia on baten promesa da, Konstituzioak hori aginduta; hau da, herritarren eskubideak zaintzea, lortzeko beharrezkoak diren gaitasunak dituelako.

Orain aurkezten dugun testuak epaileek ondo ezagutzen dituzten printzipio orokor batzuk jasotzen ditu: independentzia, epaileen erabakimen askea, okerreko eraginik gabekoa zedarritzen duena; inpartzialtasuna, epaileak interesik gabeko hirugarrena izatea nabarmentzen dena; eta zuzentasuna, epaileei aurreko printzipioekiko eta giza duintasunarekiko koherentzia eskatzen diena, baita beren bizitza sozialean ere, eta herritarrek justiziarengan duten konfiantza arriskuan egon litekeen egoera guztietan.

Justizia zerbitzu bat ematea ere badenez, printzipioen artean jokabide-eredu batzuk ere jaso dira, hala nola, adeitasuna, arreta eta gardentasuna. Horiek zenbateraino betetzen diren zuzenean ikusiko dute epaitegietara doazenek, eta hori dela eta garrantzi handia dute herritarrek justiziarri buruz duten iritzian. Hortaz, ezin dira baztertu «txikikeriak» direlakoan.

Sistema osatzeko, Etika batzorde bat sortu da. Horren osaerak, funtzionamenduak eta prozedurak guztiz bermatuko dute egiten zaizkion kontsulten konfidentzialtasuna eta ematen dituen iritziak orientagarriak baino ez direla izango. Behar bezala anonimo bilakatu eta gero, batzordearen irizpen eta txostenak osatuko dituzte, aldi berean, doktrina-corpus oso erabilgarria sortuz.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA
Karrera judizialerako kode etiko bat
egiteko lantaldea

I. ZATIA

Printzipioak

I. KAPITULUA

Independentzia

1. Independentzia judiziala herritar ororen eskubidea da, eta hura babestea epailearen betebeharrak profesional saihestezina da, eta ez bere estatutuko pribilegio pertsonala.
2. Epaileak bere konbentzimendu ideologikoak eta sentimendu pertsonalak baztertzeko dituen aldarte batean jarri behar du bere burua, eta bere erabakietatik at utzi behar ditu kanpoko interferentzia guztiak egindako frogak eta prozesuan alderdiek egindako jarduerak baloratzerakoan, prozeduraren arauen arabera, bai eta aplikatu beharreko arau juridikoak ulertzerakoan ere.
3. Epaileek konpromiso aktibo bat hartu behar dute sistema judizialak ondo funtzionatzeko duela bermatzeko, eta gizartean botere judizialarekiko errespetua eta konfiantza sustatuko dituzte. Gainera, beren lana modu zuhur eta neurritzekoan egingo dute, Estatuko beste botereekiko errespetuz jokatu.
4. Epaileek botere publikoari lan-baldintza objektiboak eskatzeko betebeharrak dute, beren lana modu independente eta eraginkorrean egin ahal izateko, eta horren ondorioz beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak hornitzeko eskatuko dute.
5. Epaileek independentzia judiziala hobetzeko lege-neurriak eskatzeko betebeharrak dute, herritarren bermea horretan datzanez.
6. Epaileek, salaketa jartzeko duten legezko betebeharraren kalterik gabe, aurka egin behar diete beren erabakietan eragin asmoz prozesuaren kanpoko hirugarren alderdiek egindako zuzeneko edo zeharkako ahalegin guztiei. Horien jatorria gainerako botere publikoetan, presio-taldeetan edo iritzirik publikoan egon daiteke, bai eta beste epaileengan ere, eta talde horien onespenerari edo gaitzespenari buruzko espektatiba oro baztertu beharko dute ebazpenak ematerakoan.
7. Auzitegi gorenetan diharduten botere judizialeko kideek, beren lana egiterakoan, maila apalagoko auzitegi-taldeen independentzia eta duintasun juridikionala errespetatu beharko dituzte.
8. Epaileriako kide bezala kargu publikoetan dauden epaileek, beren eskumenak erabiltzerakoan eta erabakiak hartzerakoan, objektibotasunez jokatu beharko dute eta, egokia denean eta, batik batik, karrera judizialeko kideen hautaketa, izendapen eta maila-igoereri dagokienez, merituen eta gaitzespenaren printzipioak zorrotz errespetatu beharko dituzte.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Karrera judizialerako kode etiko bat egiteko lantaldea

9. Edozein jardueratan ari direnean eta publikoak epaile bezala identifikatuko dituenean, zuzenbide-estatu demokratiko batean herritarrek botere judizialaren independentziaren inguruan duten pertzepzioa arriskuan jartzen ez duen edo horri kalte egiten ez dion moduan jokatu dute epaileek, eta horrela gauzatuko dituzte beren eskubideak ere.

II. KAPITULUA

Inpartzialtasuna

10. Inpartzialtasun judiziala epailearen alderdiekiko eta prozesuaren objektuarekiko besterentasuna da. Bi alderdiekiko distantzia bera izango dute, eta prozesuaren objektuarekiko ez dute inolako interesik izango.

11. Inpartzialtasuna epailearen baitan ere aplikatu behar da. Horrela, kasu batean erabakirik hartu aurretik, epaileak erabaki horren zuzentasuna arriskuan jar lezakeen edozein aurreiritzi edo joera identifikatu eta gainditu beharko du.

12. Epaileek ezin dute inolako harremanik izan alderdiekin, eta ezin dute erakutsi beren objektibotasuna zalantzan jartzen duen aldeotasunik edo lehentasunezko jokabiderik, ez prozesua zuzentzerakoan ez erabakia hartzerakoan ere.

13. Erabakiak hartzeari dagokionez, epaileek ez dute ondoriorik atera behar prozesuan horretarako egokia den unea iritsi arte, hau da, ebazpen judiziala eman aurreko momentua heldu arte.

14. Inpartzialtasuna dela eta, bereziki zorrotz jokatu behar da alderdien eta prozesuan parte hartzen duten gainerakoen aukera-berdintasunaren printzipioari dagokionez.

15. Epaileek, ahozko egintzak zuzentzen ari direnean, giro egoki bat sortuko dute alderdiek eta gainerako parte-hartzaileek askatasunez eta lasaitasunez gertakariei buruzko beren bertsioak eman ditzaten eta Zuzenbidearen aplikazioari buruzko beren iritziak jakinaraz ditzaten. Era berean, modu aktiboan entzungo dute, erabaki egokiena hartzen dutela bermatzeko.

16. Inpartzialtasunak, gainera, betebeharrak ezartzen die epaileei, prozesuan edo hortik kanpo inpartzialtasuna bera zalantzan jar lezaketean eta herritarrek justiziarengan duten konfiantza kaltetu lezaketean jokabideak saihesteko.

17. Epaileek inpartzialtasun-itxura gorde eta gordearazi behar dute, epaile-lanerako inpartzialtasun materiala funtsezkoa delako ideiarekin bat eginez.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Karrera judizialerako kode etiko bat egiteko lantaldea

18. Karrera judizialeko kide orok du interes-gatazkak saihesteko betebeharra. Horrelako egoerarik gertatuko balitz, horren berri eman beharko du gardentasun osoz eta ahal bezain laster, legez aurreikusita dauden mekanismoetako edozein erabiliz.

19. Bizitza sozialean zein hedabideekiko harremanean epaileek beren gogoetak eta iritziak eman ditzakete, baina zuhurtziaz ere jokatu behar dute jendaurreko adierazpenek ez dezaten haien inpartzialtasun-itxura kaltetu; zuhurtasuna agertu beharko dute, edonola ere, prozesuko alderdiei edo garapenari kalte egin diezaieketen datuei dagokienez.

20. Hedabideekiko harremanetan epaileek eginkizun pedagogiko baliotsua bete dezakete legea zein prozesuaren barruan oinarrizko eskubideak nola tratatzen diren azaltzeko.

21. Baldin eta demokrazia, zuzenbide-estatu eta oinarrizko askatasunak arriskuan badaude, salatze egin beharra gailentzen zaio zuhurra izateko betebeharrari.

III. KAPITULUA

Osootasuna

22. Osootasuna dela eta, epaileen jokabideak berretsi egin behar du herritarrek Justizia Administrazioan duten konfiantza, jurisdikzioan ez ezik, baita epaile gisa ezaguna den edo halako izaera aldarrikatzen duen alderdi guztietan ere.

23. Beren jardunetik kanpoko jarduera profesionalek zein indartzeko edo ordeztuko planetan borondatez parte hartzeak jurisdikzio-eginkizun onenari kalte egin diezaioten saihestuko dute epaileek.

24. Epaileek, Justizia Administrazioari loturiko langileekin harreman pertsonaletan, aldekotasun-itxura emateko arriskua saihestu beharko dute.

25. Pertsona guztien duintasuna eta berdintasuna errespetatzeko konpromiso aktiboa izan beharko dute epaileek, honako arrazoi hauengatik bereizkeriarik egin gabe: sexua, arraza- edo etnia-jatorria, desgaitasun fisiko edo psikikoa, erlijioa edo sinesmena, sexu-orientazioa edo ideia politikoak, edo beste edozein inguruabar sozial edo pertsonal.

26. Epaileek arduraz bete behar dute jurisdikzio-jarduera, eta agindutako gaiak xehe-xehe aztertu behar dituzte, horiei dagokien berezitasuna aintzat hartuta.

27. Epaileek egoki deritzoten ebazpena emango dute beti, eta ez dute iritzi hori inola ere erosotasunagatik aldatuko.

28. Epaileek ez dute onartuko gizarte-konbentzio logikoak gainditzen dituen opari, kortesia edo begirunerik; berdin ere egingo dute hori onartzeak inpartzialtasun-itxura arriskuan jarriz gero.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Karrera judizialerako kode etiko bat egiteko lantaldea

29. Jurisdikzio-eginkizunaren duintasunak horren araberako jokabidea eskatzen duela jakin behar dute epaileek.

30. Epaileek ez dute jurisdikzio-eginkizunen prestigioa erabili edo emango norberaren, senide baten edo beste edozein pertsonaren interesak laguntzeko.

31. Epaileek, herritar gisa, adierazpen-askatasunerako eskubidea dute, baina zuhur eta neurritz baliatuko dute eskubide hori independentzia eta inpartzialtasun-itxura gordetzeko, bai eta gizarteak sistema judicial eta jurisdikzio-organoetan konfiantza izan dezan ere.

IV. KAPITULUA

Kortesia, arreta, gardentasuna

32. Epaileek begirunezko tratua eman behar diete uneoro prozesuan esku hartzen duten pertsona guztiei, eta behar den begirunea erakutsi behar diete haien inguruabar psikologiko, sozial eta kulturaleri. Jarrera tolerantea eta begirunezkoa agertu behar dute, halaber, beren erabakiei egindako kritiken aurrean.

33. Epaileek prozesua egoki garatzen saiatu behar dute, baita arrazoizko epearen barruan ebazten ere; horretarako, prozesu-egintzak ahalik eta puntualtasun handienaz egitea zainduko dute.

34. Epaileek prestakuntza jaso eta eguneratzeko eskubidea dute, eta behar besteko prestakuntza-bitartekoak eskatzekoa ere, eginkizunak profesionaltasun-maila onenetan bete ahal izan ditzaten.

35. Epaileek gardentasunerako jarrera positiboa bere egin behar dute Justizia Administrazioaren ohiko jardun modura. Erakundeen komunikazio-instantziak eskura izango dituzte horretarako.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA
Karrera judizialerako kode etiko bat
egiteko lantaldea

II. ZATIA

Etika Judizialerako Batzordea

1. artikulua

Funtzioak

1. Batzordearen eginkizunak hauek dira:

a) Auzitegietako Gobernu Salek, Epailen Batzarrek, Elkarte Judizialek edo zerbitzu aktiboan dagoen epaile orok kasu zehatzen gainean egindako kontsultei buruzko idatzizko irizpenak ematea.

Batzordeko kideek dena delako gai edo auziarekin lotuta zer jarrera duten agertuko dute irizpenek.

b) Testu honetan eta antzeko beste batzuetan jasotako etika judizialeko printzipioen eta proposamenen hedapena eta ezagutza bultzatzea.

c) Etikako beste batzorde judizial batzuekin koordinatuta eta elkarlanean –bereziki Etika Judizialerako Batzorde Iberoamerikarrarekin–, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiari egotzitako eginkizunak garatzen laguntzea.

d) Salbuespenez, interes orokorreko gaietara edo auzietara, testu honetan jasotako printzipioen arabera, epailen aldetik espero den portaera etikoari buruzko txostenak egitea, betiere Auzitegietako Gobernu Salek, Epailen Batzarrek edo Elkarte Judizialek eskatuta.

2. Batzordearen jardunak ezin du diziplina-ahalaren gauzapena oztopatu, eta ezin da sartu epailen erantzukizun zibila edo penala zehazteko prozeduran. Batzordearen jarduerak ere ez du balio izango erantzukizun zibilak, penalak edo diziplinazkoak argitzeko jarduketan erreferentzia edo osagarri modura, betiere interesdunaren onerako ez bada.

2. artikulua

Osaera



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Karrera judizialerako kode etiko bat egiteko lantaldea

1. Batzordeak zazpi kide izango ditu eta, eginkizunak betetzeko, erabateko independentzia bermatuta izango dute.
2. Sei kide Karrera Judizialekoak izango dira, eta zerbitzu aktiboan egongo dira. Horietako bat epailea izango da; hiru, magistratuak, eta bi, Auzitegi Goreneko magistratuak.
3. Gainerako kidea ospe aitortuko pertsona bat izango da, Etikaren, Zuzenbidearen Filosofiaren edo Filosofia Moralaren arlo akademikoan ibilbide egiaztatua duena.

3. artikulua

Hautaketa

1. Zerbitzu aktiboan dauden Karrerako kide guztiek hautatuko dituzte kide judizialak.
2. Hautaketa bakarkako, balio bereko, isilpeko eta zuzenean emateko boto bidez egingo da, eta Batzordearen agintaldia amaitu baino hiru hilabete lehenago deitu beharko da.
3. Hauteskunde-barruti bakarra egongo da Estatuko lurralde osorako.
4. Banako hautagaitzak izango dira, eta deialdiaren osteko hilabetearen barruan aurkeztu beharrekoak. Boto gehien lortzen dituztenak hautatuko dira, kategoria judizial guztien behar besteko ordezkariak errespetaturik betiere, 2. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Kategoria judizialen bateko hautagai nahikorik aurkeztu ezean, bete gabeko plaza hori boto gehien lortu dituen hautagaiak beteko du, haren kategoria edozein izanik ere.
5. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak bide elektronikoz antolatuko du hauteskunde-prozedura.
6. Hautatutako batzordekideek kide ez-judiziala izendatuko dute.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA
Karrera judizialerako kode etiko bat
egiteko lantaldea

4. artikulua

Agintaldia

1. Aldi bakar baterako izendatuko dira Batzordeko kideak, lau urteko eperako.
2. Batzordeko kide judizialen erdiak bi urtean behin berrituko dira.
3. Batzordeko kideen eginkizunen gauzapena ohorezkoa izango da, eta ez dute horregatik ordainsaririk jasoko, eragindako gastuen itzulketa besterik ez.

5. artikulua

Funtzionamendua

1. Batzordeko burua gehiengoak hautatutako kidea izango da, eta idazkaria, berriz, kide judizial berriena.
2. Batzordearen eraketa baliozkoa izan dadin, haren bost kidek egon beharko dute gutxienez. Guztiak egon beharko dira, nolana ere, aztertu edo tratatu beharreko gaiaren edo auziaren garrantzia ikusita, horrela erabakitzen bada.
3. Batzordearen txostenak gehiengo bidez erabakiko dira.

Berdinketa gertatuz gero, batzordeburuak kalitatezko botoa izango du.

4. Kontsulta egin eta bi hilabeteko epearen barruan eman beharko dituzte irizpenak.

Txostenak onartu beharko dituzte horrelakoak formulatzea eta egitea, hurrenez hurren, erabakitzen dutenetik hiru hilabeteko epearen barruan.

5. Eratutako lehen Batzordeak idatzi beharko ditu antolamendu- eta jarduera-arauak, testu honetan ezarritakoari jarraikiz; gehiengo bidez erabakiko ditu horiek.

Batzordeak egoki deritzen arau-aldaketak egingo ditu gehiengo bidez.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Karrera judizialerako kode etiko bat egiteko lantaldea

6. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Batzordeari behar dituen bitarteko materialak eta giza baliabideak eman beharko dizkio, egoki antolatze eta eraginkortasunez jarduteko.

6. artikulua

Ondorioak

1. Batzordearen egintzek ez dute nahitaezko indar juridikorik eta ondore loteslerik.
2. Ezin izango dira kontsultaren xede izan ikerketaren, epaiketaren edo diziplinazko espedientearen mende dauden gaiak edo auziak.

7. artikulua

Publikotasuna

1. Gauzatutako jardueri buruzko urteko txostena egingo du Batzordeak.
2. Batzordearen egintzak jendaurrean ezagutaraziko dira eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak ahalik eta zabalpen handiena emango die; edozelan ere, horietan dauden erreferentzia pertsonalak ezabatuko ditu aurretik, eta ohorea, intimitatea eta datuen babesa erabat errespetatzen direla bermatuko du.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Etika Judizialerako Batzordearen lehen hautaketarako deialdia Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak egingo du testu hau onartu eta hiru hilabeteko epearen barruan.

Etika Judizialerako Batzordearen lehen bileraren burua karrera judizialean antzintasun handiena duen epailea edo magistratua izango da, eta berriena izango da idazkaria.

Batzordea eratu eta bi urteren buruan berrituko da lehen aldiz; epailea, magistratu bat eta Auzitegi Goreneko magistratu bat ordeztuko dira orduan. Lehen bileran zozketa bidez erabakiko da ordeztu beharreko kideak.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

**Karrera judizialerako kode etiko bat
egiteko lantaldea**

AZKEN XEDAPENA

«Etika Judizialeko Printzipio» hauek ezin izango dira inola ere erabili, ez zuzenean ezta zeharka ere, diziplina-xedez, betiere prozeduraren xede den subjektuaren onerako ez bada.